



ehuna

LEHEN HAURTZARORAKO PROIEKTU
ESZENIKO BAT, CRISTOBAL BALENCIAGAREN
SORMEN UNIBERTSOAN OINARRITURIK

dossier

EKOIZLEAK:


INSPIRAZIOA:

dantzaz



B CRISTOBAL BALENCIAGA MUSEOA

LAGUNTZAILEAK:



Haritik tira ezkerre, kolorez kolore bidaiatzen duen gure iruditegi amaigabearen sartuko zara. Ideiak lotu eta ezusteko atseginez jantziko zaitugu. Jakin-minez josirik, jolas gosez eta hartu-eman etengabe batean sortzen da EHUNA.



Fitxa artistikoa

Koreografia eta interpretazioa:

Jone Amezaga del Frago eta Miren

Lizeaga Gonzalez

Dramaturgia: Rosa A. García

Jantziak: Maialen Miranda

Eszenografia laguntzailea: Ana

Fernández Alosno

Musika: François Couture

Argiztapena: Javier Kandela

Paraiso Antzerkia/Kunarte-k,
eta Dantzaz-ek euskal jostunaren
obran oinarritzen dira, bi sormen
zentro hauentzako, "lehen
bizigunea jantzia da"





Gorputzek aire eta telekin sortzen duten mugimenduaren bidez, dantzari gure artean lekua bilatzen diogu. Hau da "Ehuna" k, Dantzaz eta Paraiso Antzerkiak sinatutako azken produkzioak, aurkezten duen ideia. **Abiapuntua Cristobal Balenciagaren iruditegia da haurrentzako proposamen honetan eta gorputzak tela, ehun eta arropen bidez mugimendua-rekin duen erlazioa esploratzen da bertan. Izan ere, bi konpainia euskaldunen ekoizpen berri honek Cristobal Balenziaga Museoaren sostengua du.**

Gorputza, jantzia eta airea. Hiru elementu hauen batura perfektuaz osatzen da armonia" zihoen Balenciagak. Dantzaz eta Paraiso Antzerkiak "bizitza duen lehen espazioa jantzia da" leloari jarraitzen zion euskal modista finaren lana berrinterpretatzeari jardun diote, haren kontzeptu iraultzailea eta gorputz eta jantziaren artean sortzen den arintasun eta hutsu-nearekiko zuen lilura oholta gainera eramanez.

Sormen prozesuan Jone Amezaga del Frago eta Miren Lizeaga Gonzalez dantzari eta sortzaile gipuzkoarrak bateratu ditu, Paraiso Antzerkia-KunArte eta Dantzaren aholkuean. Ikusle txikiak mundu poetiko eta sentsible batean murgilduko ditu eszenak; gorputz, aire, jantzi eta ehundura bitartez. Honetaz gain, "Ehuna" ikuskizun ohiko batetik haratago doa, mediazio programa eta ekintza komunitarioa dakartza bere baitan, familia eta ikusle txikiei zuzendua.

"Ehuna" ren sormen prozesua KunArten (berrikuntza artistikorako eta haurtzarorako gunea) eta Dantzagunean (Gipuzkoako Foru Aldundiaren dantzaren zerbitzurako gunea Erreterian) burutua izan da aldi berean. Ikuskizuna pasa den azaroaren 17an, 44. Gasteizeko Antzerki Jaialdi Internazionalan, estreinatu da. Gerora, Valladolideko TeVeo jaialdiaren programazioaren parte ere izan da.

Ekoizleak: **Kunarte/Teatro Paraíso eta Dantzaz**

Iraupena: **30 minutu**


Ikuslegoa: **1-6 urte bitarteko haurrak, euren senideek lagunduta**



Dantzaz

Produkzio zentroa, laborategia eta dantza konpainia. Hauek dira Dantzaren identitatearen hiru zati, plataforma berritzaile eta aitzindaria. 2002tik, 110 dantzari eta 55 koreografo izan dira bertan. Ekoizpen etxe bezala lanean, sorkuntza eta ekoizpen artistikoa landuz. Dantzaz, modu honetan, Dantza Sektorerako Enplegu Zentroa bezala konfiguratzen da, eta dantzariei, sortzaileei, baina baita beste profesionalei aukerak ematen dizkie prozesu eta proiektu koreografiko ezberdinetan lan egiteko.

Dantzazek nazioarteko proiektuak bultzatzen ditu, beste dantza etxe batzuekin elkarlanean. Adibidez Korzo (Holanda), Piemonte dal Vivo, Aterballetto edo Scenario Pubblico (Italia), Danish Dance Theatre (Danimarka), Conseil des Arts et des Lettres du Quebec (Kanada), CEPRODAC (Mejiko), PTL (Eslovenia) edo Dance Base (Erresuma Batua), etengabeko sare zabal baten, energia, freskura eta kalitate ezin hobea eskaintzen.



Paraíso Antzerkia:

hautzaro eta gaztaroarentzako arte eszenikoen sari nazionala

Paraíso Antzerkia duela 40 urte martxan jarri zen proiektua da. Finkatutako konpainia honek proiektu globala garatzen du non Antzerkia, Hautzaroa eta Hezkuntza Artistikoa elkarrekin esku-hartzen duten. Gainera, publikoa erakartzeko eta hezteko lan egiten du etengabe.

Arlo honetan dihardutenek Paraíso Antzerkia enpresa berritzailetzat daukate, gai, formatu eta lan-metodo berriak lantzen baititu. Gainera, kalitatea eta hobekuntzaren alde egiten du eta ikusleez, gizarteaz eta lanbideaz arduratzen da. Paraíso Antzerkiak haur eta gazteentzako lan eszenikoak sortu eta zabaltzen ditu. Era berean, Publikoen Sorkuntza eta Hezkuntzarako proiektuak garatzen ditu, lan esparru ezberdin eta anitzak jorratzen dituelarik.

- * Ikusleak gure garapenaren motorra direla uste duen egitura artistikoa.
- * Munduan zehar hedatzen den proiektu artistiko eta kudeaketa proiektu berritzailea.
- * Umeez, Gazteez eta Kulturaren demokratizazioaz arduratzen den giza taldea.
- * Zerbitzu publikoa eskaintzeko nahia duen enpresa.

KunArte


KunArte hiritargo txikienerari (0-6 urte) eta lagun dituzten helduei (artistak, familiak, irakasleak, politikoak eta komunikabideei) zuzendutako Berrikuntza Artistikorako Zentroa da. Bere ekintzak Hautzaroak mundua eta Arteak ezagutzearen erakusten duen jakinminez betetako begirada horretan inspiratuak daude. Esplorazio eta bilaketa prozesu batean murgildu garen bost urte hauen ondoren, proiektua sorkuntza eta formakuntza akzioak, emanaldiak eta audientzien laborategiak osatzen dute.

KunArtek ekintza andana garatzen du sorkuntza artistiko profesionala sustatzeko aldera (Egonaldi Artistikoak, mentoring-a, lantalkdeak, mintegiak...). Era berean, hiritargoak, batez ere, Hautzaroa eta bere familiak, lenguaia artistikoez jabetzeko lan eskerga egiten da.



Cristobal Balenciaga Museoa (Getaria)

Cristóbal Balenciaga museoak 2011. Urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.



Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da —3.000 pieza inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker—, eta hedadura formal eta kronologiko handia du —jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako—; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak xx. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Bunny Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Rethy printzesa, Grace Kelly edota Madame Bricardek, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.



DANTZAZ
Pelotari kalea, z/g
(Dantzagunea)
20100 RENTERIA-GIPUZKOA
www.dantzaz.eus
Teléfono: 943-021136
dantzaz@dantzaz.eus
<https://vimeo.com/dantzaz>




TEATRO PARAÍSO
Pueblo de Abetxuo 14
01013 Vitoria-Gasteiz
ARABA
www.teatroparaiso.com
Teléfono: 945 28 93 23
info@teatroparaiso.com



CRISTOBAL BALENCIAGA MUSEOA
Aldamar Parkea Parkea, 6
20808 Getaria
Gipuzkoa
www.cristobalbalenciagamuseoa.com
Teléfono: 943 00 88 40
info@cristobalbalenciagamuseoa.com

KONTRATAZIOA:



DANTZAZ
Pelotari kalea, z/g
(Dantzagunea)
20100 RENTERIA-GIPUZKOA
www.dantzaz.eus
Teléfono: 943-021136
dantzaz@dantzaz.eus
<https://vimeo.com/dantzaz>

